



# 35 urtez, Correosen

Javier Garate

# G R E M I O N E N G I D A



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**LEIHOAK**

**ODR**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak  
Atak, leihoak, pertsianak, barandilak,  
eltxo-sareak eta toloak jartzen ditugu.

**662 234 609**

odrleihoak@gmail.com  
Sagar Erreka Kalea 2, 20990 SOKALUZE

**AROZTEGIA**

**Biena, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Umuzano, 8  
**943 740 512**  
Fax: 943 743 595  
bienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**

**IZURRIEN KONTRAKO  
TRATAMENDUAK**

**PLAGANATURA**

Cuidando lo Salud Ambiental

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eus  
www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegio - altzariak - eltxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com

**KONPONKETAK**

**LODOSO KONPONKETAK**

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltxo-sareak

Errosario kalea, 13, behea  
lodosokonponketak@gmail.com

**943 247 659**  
**617 585 330**

**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com  
 @carpinteria\_imar

**Gidan**  
agertzearen onurak!

**23,82€**  
hilero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak  
eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

**12**  
aldiz urtean

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron  
erakusleiho ikusiena.

**4.700**  
ale astero

4.700 ale banatzen ditugu  
Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

**4.700**  
ale astero

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure  
proiektua finantzatzen.

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
20870 ELGOIBAR



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoan erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kexetxa, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)

Edurne Izagirre

Psikologoa

## Sozializazio traumatikoa



**"Bakarrik eta lasai lo egitea lortzeak sortzen duen barne konfiantzak bizitzako beste erronkei aurre egiteko indarra ematen digu"**

Asko hitz egiten da bakardadearen ondorio negatiboez, baina ohiko bihurtu den bezala, titular sinple bat legi orokor bihurtzen dugu gure barnean, inolako testuingururik gabe. Bakarrik eta lasai lo egitea lortzeak sortzen duen barne konfiantzak bizitzako beste erronkei aurre egiteko indarra ematen digu. Hiri bateko metroaren mapa ulertu eta ibilbidea gure kabuz markatzeko gai izateak edonora bidaiatu genezakeela sentiarazten digu; geure kabuz lorturiko arrakastak autonomia eta autoestimua ematen digu.

Sozializazioari dagokionez, aldiz, taldeak egiten duenera bultzatzen ditugu seme-alabak, bakarrik ez daitezen gelditu eta ez gara jabetzen horren kostuaz. Erlazioetan, metroan bezalaxe, neure ibilbidea bilatzeko gai ikusten naizenean nago ondo: dakidanean noiz eta norekin sentitzen naizen eroso, zerk mintzen nauen eta zerk sortzen didan poza, zer egitea dudan gustuko eta zer ez... Beraz, etxera datorrenean esanaz gaur ez duela ondo pasa ezeroso egin zaion egoera batengatik, ez dezagun haren kontakizuna gutxietsi.

Baina hurrena kalera irtetzeko motibaziorik ez duela ikustean, bultzatuko dugu irtetzera taldetik kanpo geldituko den beldurrez. Hori eginda lortzen dugun gauza bakarra da bere sozializazio prozesua traumatikoa izatea; ez eraso bortitz batek sortzen duen trauma ikusgarri eta nabarmena izatea, baizik eta erosoak ez zaizkigun oinetakoekin kilometroak eta kilometroak ibili ondoren sortzen diren zauri erreak sortzea; ezin bereizi izatea gero non sortu zen urratua, jada hanka osoan dugulako mina: bere iritzia gordetzen duen bakoitzean edo onartua sentitzeko benetan sinisten ez duena defendatzen duenean, sakonki mintu duen iruzkinari barre egitean, edo taldean onartua izateko lagun mina iraindu duenean...

Lagun diezaiegun pertsona autonomo gisa osatzen, benetan gozatzen dituzten zaletasunak bilatu eta elikatuz eta seguru sentitzen diren lekuetan soilik egonaz, gatazkei modu lasai eta eraginkorrean aurre egiteko gai diren arte. Eta behin beren izaeraren oinarria finkatua dutenean, ahalko dituzte topatu benetako lagunak, izaera eta balio antzekoak dituztenak; mundura irtetzeko segurtasuna emango diotenak.

## 4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Eskerrik asko

Eskerrak eman nahi dizkiot Elgoibarko Udalari txakurrentzako espreski prestatutako Lerungo txakur parkearengatik. Txakurrak aske egoteko, beste txakur batzuk ezagutzeko eta beraien egin beharrekoak egiteko aukera izango dute bertan.

Gune seguruak eta erosoak dira horrelako parkeak, txakur guztientzat eta baita txakurren jabeentzat ere. Hori bai, txakur-jabe bakoitza bere txakurraren eta haren jokabidearen erantzule izan beharko duela garbi dago, panelean argi agertzen den moduan.

A.A.



colchoneria textil hogar

San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**%30 EKO DESKONTUA**  
**NEGUKO OHE-ARROPETAN**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

HEGO EUSKAL HERRIA  
ETA ESPAINIA:

**42 €**

Elgoibarko Izarrako  
bazkideek:

**34 €**

IPAR EUSKAL HERRIA  
ETA EUROPA:

**59 €**

Elgoibarko Izarrako  
bazkideek:

**46 €**

EUROPATIK  
KANPO:

**75 €**

Elgoibarko Izarrako  
bazkideek:

**60 €**

### Urtarrilaren 26an kobratuko dugu.

Eskuz ordaintzen duzuenok Elgoibarko Izarrako bulegotik pasa zaitzekete (Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3- ezk.) edo kontuan egin ordainketa.  
Harremanetarako: **943 744 112** edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)







Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Mendaroko kaleak txakur kakaz beteta daude:**

"Mendaroko kaleetako egoera jasanezina da, bazter guztiak txakur kakaz beteta daudelako. Herriko Enparantzako argazkia da hau! Lotsagarria! Sekulako kaka-mokordoak plazan bertan, herri erdi-erdian. Txakur jabe askok lotsa gutxi dute. Guztion guneak eta herritarrak errespetatzeko eskatu nahi diet txakur jabeei".



### **Lekuederreko parkeko olatuetan ezin al da barandaren bat jarri umeak erortzeko arriskua gutxitzeko?:**

"Lekuederreko jolas parkeko olatuak nahiko altuak dira eta hainbat ume erori izan dira aparkaleku aldera. Beste askok salto egiten dute, kontziente izan gabe kotxe asko dabilzala eta arriskutsua dela. Eskertuko genuke haurren segurtasunerako baranda bat-edo jartzea". BARRENEK Udalera jo du, eta haxe erantzun dute arduradunek: "Gune horri buruzko azterketa eta analisisia egiten jarraitzen dugu. Baranda ipintzearen aukera aztertu da, baina baranda jartzeak beste arrisku eta arazo batzuk sortzen dituen ez dugu aukera hori aurrera eraman. Hala ere, gune hau hobetu dezakeen beste aukeraren bat aztertzen ari gara. Bestalde, adierazi nahi dugu bertan jolasten duten umeen ardura, batez ere inguruan dauden arriskuei buruz kontziente ez direnena,



beraien ardura duten helduena dela, eta beraz, inguru honetan duten jokabidea beraien ardura ere badela".



### **Txalo bat Elgoibarko Udalari, Kirol Sarien galan gor-mutuentsako interpretea jartzeagatik:**

"Mila esker Kirol Sarien galaren antolatzaileei, gor-mutuen hizkuntzan ere eman zutelako gala. Horri esker ekitaldia bere osotasunean jarraitzeko aukera izan genuen, eta oso interesgarria izan zen. Eskerrik asko kontuan hartu gintuzuelako".



## **%10,55eko langabezia tasarekin itxi du 2024a Debabarrenak, urte hasierakoa baino %0,6 txikiagoarekin**

**D**ebabarreneko 2024ko langabezia datuak eman dituzte argitara, eta urtea hasi zenean baino langabe gutxiago zenbatu zituzten eskualdean urte amaieran. %10,61eko langabezia-tasarekin hasi zuen urtea Debabarrenak, eta %10,55eko indizearekin itxi zuen urtea. Guztira, 2.729 langabe daude gure eskualdean.

Herriei erreparatuta, Deba da langabezia-tasa txikiena daukan herria; %6,25 (165 langabe) eta tasa altuena, berriz, Soraluek dauka %13,27 (232 langabe), alegia. Eibarrek ere bailarako batez bestekoa baino langabezia tasa handiagoa dauka, %12,42koa eta 1.556 langabe ditu.



Elgoibarrek 501 langaberekin hasi zuen 2024a, eta abenduan, berriz, 491 zenbatu zituzten. %9,20 langabezia-tasa dauka Elgoibarrek, bailarakoa baino %1,35 txikiagoa. Mendaroren kasuan, datuek okerrera egin zuten urtean zehar. 2024ko urtarrilean 82 langabe zeuden herrian, eta 90 zituen abenduan. %9,11ko langabezia tasa dauka Mendarok.

### **Elgoibarko baserritarrak, abeltzainak eta artisauak batu dituzte Tokiko Ekoizleen Gidan**



Elgoibarko landa inguruan elikagaiak ekoizten dituzten pertsonak eta egiten duten lana bistaratzeko, eta gainerako herritarrei gerturatzeko helburuarekin sortu du Elgoibarko Udalak Tokiko Ekoizleen Gida. Gazta, haragia, ezti, etxeko ogia, barazki freskoak eta sasoiko frutak, eta horien ekoizpenean diharduten pertsonak ezagutzeko eta euren

lana balioan jartzeko aukera ematen duen argitalpena da: Ekoizle bakoitzaren fitxak, eskaintzen dituzten produktuak, salmenta modalitateak eta harremanetarako datuak bildu dituzte. Gida formatu fisikoa herriko etxebizitza guztietan banatu du Udalak, eta formatu digitalean ere kontsultatu daiteke: [elgoibar.eus/baserritar-ekoizleak](http://elgoibar.eus/baserritar-ekoizleak).

## Sant Feliu de Llobregateko gotzain izendatu dute Elgoibarren apaiz izandako Xabier Gomez

**F**rantzisko Aita Santuak Sant Feliu de Llobregateko gotzain izendatu du Xabier Gomez (Azkoitia, 1970), 1994tik 1997ra Elgoibarko San Bartolome parrokian apaiz laguntzaile lanetan aritu zen apaiza. San Bartolome parrokiako betebeharreran Joxin Arregi apaizari laguntzera etorri zen Elgoibarrera. Une hartan Benantzio Otaegi zen parrokoa eta Maalako elizako arduraduna, Jose Luis Beloso. Joxin Arregi, berriz, zenbait auzotako eukaristiez arduratzen zen. Elgoibarko egonaldia ostean, Gomezek ikasketetan sakontzea erabaki zuen eta Teologian lizentziatu zen Salamancan. Familia bitartekotzan eta orientazioan masterra ere egin zuen Salamancako pontifize unibertsitatean (UPSAL) eta Kulturarteko Gizarte Bitartekotzan Espezialista ikasketak ere egin zituen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. 2003an Dominikoen ordenan sartu zen, eta Madrilgo Nuestra Señora de Atocha komentuko bikarioa izan zen, eta baita Bartzelonako Santa Catalina komentuko prior ere. 2016an Europako justizia eta bakea sustatzeko



arduradun izendatu zuten, eta 2021etik Espainiako Apezpiku Konferentziako Migrazio departamentuko zuzendaria izan da. Orain, Saint Feliuko gotzaina da. 2004an sortu zuten Kataluniako elizbarruti hori eta bigarren gotzaina izango da azkoitiarra, Agusti Cortes ordezkatzuz.

### Pentsiodunen mugimenduak manifestazioa eta herri bazkaria antolatu ditu zapaturako, mobilizazioen zazpigarren urteurrenean



Urtarrilaren 15ean zazpi urte beteko dira pentsiodunak pentsio duinen alde laurogei bat herritako plazetan astelehenero biltzen hasi zirenetik, tartean, Elgoibarren. Zazpigarren urteurrenaren harira, zapaturako hainbat ekimen prestatu dituzte, eta bailarako pentsiodunen taldeak batuko dira Eibarren. 12:00etan, eskualde mailako

manifestazioa egingo dute Eibarko Untzaga plazatik abiatuta, eta, manifestazioaren ondoren, herri bazkaria egingo dute, Errebal Plazia eraikinean. Txartelak salgai daude, 15 euroan. Eibarko Pentsionisten Taldetik eskualdeko herritar guztiak deitu dituzte zapaturako manifestaziora eta Elgoibarko Pentsiodunen Taldeak bat egin du deialdiarekin.



## Bukatu dituzte Mendaroko zubia berritzeko lanak



**M**endaroko sarbide nagusia den zubia berritzeko lanak amaitu dituzte dagoeneko. Zubia erabat modernizatu dute, eta altzairuzko habe metalikoekin indartuta jatorrizko eraikuntzaren gaineko lan-karga arindu dute. Era berean, espaloiak bi metrotara zabaldu dituzte, oinezkoentzako irisgarritasuna eta segurtasuna hobetuz, eta "segurtasun estandar zorrotzenak" betetzen dituzten eusteko sistema homologatuak ere jarri dizkiote. Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia Mendaron izan zen joan zen astean zubi berritua bisitatzen, eta aukera baliatu zuen Enetz Ezenarro Mendaroko alkateak Aldundiari eskerrak emateko, azken urteetan udal gobernu ezberdinek eta herritarrek egindako eskaerari erantzuteagatik.

1970eko hamarkadaren hasieran eraiki zuten orain berritu duten zubia. Ordutik, asko hazi da

Mendaro: "Mendaroko biztanleentzat argi zegoen azken urteetan zubiak jasaten zuen trafikoak ez zuela zerikusirik diseinatu zutenean jasaten zuenarekin. Zubia indartu eta egoera berrietara egokitu behar zen, denborarekin bat datorren zerbitzua emateko, bai ibilgailuen trafikoari dagokionez, bai oinezkoiei dagokienez. Gure ustez, ekintza honekin erantzun egokia ematen zaio arazo honi", esan zuen Enetz Ezenarro alkateak. Obraren garrantzia azpimarratu zuen Mendozak eta esan zuen Mendarorako sarbideko zubia berritzeak ez duela epe luzearako funtzionaltasuna bakarrik bermatzen, baizik eta jauzi kualitatiboa dakarrela bide-segurtasunari eta irisgarritasunari dagokienez. "Gaur egun, Mendarok zubi seguruagoa, eskuragarriagoa eta herritarren egungo beharretara egokitua du".

Lanek 2.871.110 euroko inbertsioa izan dute.

### Irteera osasungarria antolatu du Jubilatuen Biltokiak martitzenerako

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak irteera osasungarria antolatu du urtarrilaren 21erako. Zornotza eta Durango ingurura joango dira, eta 12 kilometroko ibilbidea egingo dute. Hamarretakoa eta bazkaria norberak eramane behar ditu. 09:30ean hartuko dute trena Elgoibarko estazioan, eta bakoitzak nahi duenean itzultzeko aukera izango du.

Horrez gain, Biltokiko zuzendaritzatik jakinarazi dute 2025ean ere jarraituko dutela domeketako dantzaldiak antolatzen.

### Sendi Anaitasuna elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 26an

Sendi Anaitasuna Mendaroko elkarteak urteko batzarra egingo du urtarrilaren 26an. Azpilgoetako elizan izango da, 11:30ean. Aurreko urteko diru-kontuen berri emateaz gain, kuota eguneraketa proposatuko dute eta hori onartzea izango da gai-ordeneko puntuetako bat. Bazkideen galdera tartearen ostean, bazkide guztien zerrenda irakurriko dute. Gogorazi dute bilerara joaten ez diren bazkideek 10 euroko isuna izango dutela.

## Familiantzako santa eskea antolatu du Atxutxiamaikak otsailaren 2rako



**E**lgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldeak, Udalarekin lankidetzan, familiantzako santa eskea antolatu du otsailaren 2rako, kultur transmisioan eragiteko asmoz. Familiek hartu dezakete parte: HH2tik LH3ra arteko umeek helduren batekin joan behar dute, baina LH4tik aurrerakoak bakarrik joateko aukera dute. Iaz bezala, Azkue bailarako

baserriak koplaturiko dituzte, Eneko Beretxinaga eta Amaia Iturriotz bertsoariekin. 10:00etan batuko dira San Rokeko ermitan, eta handik abiatuko dira oinez, baserri baserri. 11:30ak aldera, mokadutxoa egingo dute Lizagasar sagartokixan.

Izena emateko esteka [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus) webgunean aurkituko duzue.

### Amaitu dituzte Santa Ana basiliza berritzeko lanak

Mendaroko Udalak jakitera eman duenez, bukatu dituzte Santa Ana basilizan egin dituzten konponketa eta berritze lanak. Ekainaren hasieran eten egin behar izan zituzten basiliza birgaitzeko lanak, teilak kendu zituztenean bestelako kalte batzuk ere agertu zirelako. Teilapeko taula sitsak janda zegoela ikusi zuten, eta gapiriotako batzuk ere hondatuta zeudela. Beraz, Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistiko Saileko arkitektoek aurreikusitako lanak konplikatu egin ziren. Ezusteko horien eraginez aurrekontua garestitu egin zen, eta horrek obra geldiarazi zuen. Proiektu berria idatzi eta exekuzio proiektua lehiaketa publikora



atera behar izan zuen berriz Mendaroko Udalak.

Egurki Eraikuntzak S.L. enpresak gauzatu ditu basiliza berritzeko lanak, eta 137.927,04 euroko aurrekontua izan dute lanotarako.



### Batxilergoko errifaren irabazlea agertu da

Batxilergoko bigarren mailako ikasleek errifak saldu dituzte ikasbidairako dirua lortzeko. Abenduaren 28an egin zuten zozketa, eta 4133 zenbakiarekin Mendaroko Elena Arizmendiarieta izan da irabazlea. 300 euroko balioa duen otarra jaso du saritzat. Argazkian Nagore Mugertza, irabazlearen alaba, eta haren lagun Eneko Urain ageri dira saria jasotzen.



*Javier Garate, Correosen Elgoibarko bulegoan 35 urtez lan egindako mendarorria.*

## **“Izugarri zaildu zaie postariei lana”**

### **JAVIER GARATE**

**Correos-eko langile izandakoa**

**Iazko azaroaren 26an hartu zuen erretiroa Javier Garatek (Mendaro, 1962) 35 urtez Elgoibarko Correosen bulegoko langilea izan denak. Postari egin zituen lehenengo zazpi bat urte, eta bulegoan aritu zen gero, bezeroekin hartu-eman zuzenean.**

*✍️* Ainara Argoitia / *🗣️* Asier Orbea

#### **Bizi osoan ezagutu zaitugu Correosen. Egingo dugu atzera begirako bat?**

1988an hasi nintzen. Jakin nuen uda hartarako jendea hartzen ari zirela langileak ordezkatzeko, eta eman nuen izena. Halaxe, bi lagun hasi ginen Donostiatik etortzen ziren hiru langile ordezkatzeko, hiru hilabeterako kontratuarekin. Gero, Deban, Eibarren eta Bergaran ere egin nituen ordezkapen batzuk, eta gustatu zitzaidan lana.

Baserrian jaio (Mendaroko Lizarrolan) eta hezitakoa naiz ni, Batxilergora arteko ikasketak egin nituen, eta iritsi zitzaidan sasoi erabakitzeko baserrian gelditu, enpresa munduan lanean hasi edo beste bideren bat hartu. Halaxe, uda hartan postari hasi, lana gustatu eta pentsatu nuen saiatu behar nintzela Correosen lan egonkorrago bat lortzen. Oposizioetara aurkeztea erabaki nuen, akademia batean liburuak eskatuta. Uste nuena baino zailagoa egin zitzaidan, asko ikasi beharra zegoelako geografiaz eta bestela, eta asteburuak baino ez nituelako izaten ikasteko, baina hirugarren saiakeran lortu nuen plaza. Lehenengo oposizioetan oso plaza gutxi atera zituzten, baina 5.000 bat plaza atera zituzten egunean egokitu zitzaidan aukera. Garai hartan Madril eta Bartzelonan ateratzen zituzten plaza gehien eta han izaten zen lanerako aukera handiagoa, baina nik esana nion nire buruari plaza Euskal Herrian egokitu ezean, Kanarietara joango nintzela lanera, epeletara. Nirekin batera gaudituzuten gehienak Madrilera joan ziren, baina niri Elgoibar eman zidaten. 1992ko urtarrilean gaudituzuten nuen azterketa, eta urrian hartu nuen Elgoibarren postari plaza.



### Postari hasi zinen, baina, ezta?

Bai, eta ez zen erraza izaten. Akordatzen naiz Eibarren hasi nintzenean eman zidatela orri bat kale-izendegiarekin, eta ala, segi! Hura zen burukomina! Ikasten dira hala ere gauzak.

### Postariei ere aldatuko zitzaien lana, ala?

Izugarri zaildu zaie lana. Lehen, beti topatzen genuen norbait etxean, baina orain, oso zaila izaten da portaleko atea zabalduko digun norbait topatzea. Orain, portaleetara sartzea zailagoa da kartak banatzea baino. Problema handia da hori. Kontrara, gero eta pakete gehiago eskatzen ditu jendeak etxean uzteko, eta gertatzen dira egoera zailak. Correosek agindua baldin badu paketea etxean entregatzeko, ezin du beste inon laga, ez bada bezeroak eskatuta, baina gertatu izan zaigu bezeroak lantokian eskatzeko eskatzea eta hara joan eta begi txarrez begiratzea jendeak.

Bada beste kontu bat jendeari ulertzea kostatzen zaiona. Guk etxera eramateko pakete bat laga diezaiokegu etxeko atea zabaldu digun edonori, ulertzen delako etxean egoteko baimena badu bezeroaren konfiantzazko norbait dela, baina bulegoan jasotzeko paketea jabeari berari edo haren baimena dakarrenari bakarrik eman diezaiokegu, gerta daitekeelako guk buzoian lagatako mezua beste edozeinek hartzea. Eta gaur arrisku hori ikusten dut mezularitzako enpresa askoren funtzionatzeko moduan. Presaka dabilta, eta askotan, entregatu nahi horretan paketeak alfonbran laga edo beste edozein bizilaguni uzten dizkiote, jakin gabe zer harreman duten. Guri Correosek esaten diguna da ezin badugu, paketea etxean entregatu bulegotik pasarazteko eskatzeko bezeroari. Etortzen zaigu jendea kexaka paketea etxean laga ez diogulako, baina nik beti esaten diet postariarentzako doble lan dela hori, eta aukera izan balu, mila bider nahiago izango zukeela etxean entregatzea.

### Noiz eta zergatik utzi zenuen postari lana bulegoko lanagatik?

Oso gustura nengibilen postari, baina halako batean, lanean hasi eta zazpi bat urtera, bulegoan postu bat gelditu zen hutsik eta pentsatu nuen aukera hura aprobe txatu behar nuela, beti ez nintzelako gazte izango eta etorri zitezkeelako kalez kale ibiltzeko ezinak. Bestela ere kaleko



lana beti da gogorragoa, eguraldi txarrarekin ere ibili behar delako gurdiari tiraka, busti ezin daitekeen materialarekin. Aurkeztu nintzen eta lortu nuen. Postari izateko titulazioarekin hasi nintzen bulegoan, eta gero egin nituen bulegoko lanerako oposizioak. Geroztik 27 bat urte egin ditut bulegoan, eta zortekoa sentitzen naiz, asmatu dudalako hartutako erabakietan eta lankideekin eta bezeroekin oso ondo moldatu naizelako beti. Maitatua sentitu naiz. Azken hiru urteak nagusia izan dudanarekin eskuz esku eman ditut lanean, lehen hiru lagunek egiten genuen lana egiten, eta sekula ez diogu hitz erdi gehiago esan elkarri.

### Urte hauetako aldaketa nagusi bat aipatzeko eskatuko bagenizu, zer nabarmenduko zenuke?

Akordatzen naiz, hasi nintzenean, metakrilatozko pantaila baten atzetik egiten genuela lan, giroa ere gaur baino gaiztoagoa zelako-edo, eta ondo gogoan daukat pantaila hark bezeroen eta gure artean sortzen zuen distantzia. Jende asko beldurtuta moduan etortzen zen, batetik, Correos instituzio handia zelako eta bazegoelako distantzia markatze halako bat, eta

bestetik, orduan jendeak ez zuelako gaur besteko eskolarik ere. Zoragarria izan zen pantaila hura kentzea. Esperientzia negatiborik ez nuen izan ordura arte ere, baina iruditzen zait asko irabazi genuela hartu-emanen. Ni ahalegindu naiz beti bezeroari behar zuen hori eskaintzen, haien beharrak asetzen, eta bezeroek eskertu didate ikuspegi komertzialarekin beharrean ikuspegi humanoarekin lan egitea.

### **Posta elektronikoa, sare sozialak... eskutizik bidaltzen al da gaur?**

Apenas. Lehen, faktura guztiak ere kartaz bidaltzen ziren, eskutizak eta postalak ere gehiago idazten ziren, zer esanik ez Gabonetan eta udako oporraldian, baina orain apenas egiten den halakorik. Kontrara, ugaritu dena pakete-zerbitzuko lana da. Hori, eta presioa. Presio handiarekin egiten da lan gaur Correosen ere, lehiatu behar dugulako prezioak zentimoraino estututa dituzten enpresa askorekin.

### **Sasoioan hartu duzu jubilaria orduan.**

Bai, egia esan, bai. Ez naiz sekula jubilatzen zain egon, oso pozik etorri naizelako beti lanera. Konturatu gabe etorri zitzaidan jubilatzen eguna ere. Oraintxe lehentxoago 20 urte nituenelakoan eta konturatzeko hemen naiz 62 urteko!. Disfrutatu egin dut lanean eta zorionekoa sentitu naiz, hartu nauten moduan hartu nautelako. Jendeak esan ere egiten zidan 'zu hain gustura egonda, jubilatzen ere ez zara egingo!'. Baina ez, sasoi nago, minik ez daukat inon, dirua egiteko afanik ere ez, eta jende onaren eskutan lagatzen dut bulegoa, beraz banoa. Hori bai, ezer egin gabe gelditzeko asmorik ez daukat, lana eman ezean, ugertu egiten delako gorputza.

### **Postari lana ala bulegokoa izan duzu gustukoakoa?**

Bulegokoa. Bietan ibili naiz gustura, baina bigarrenak gehiago bete nau; baita aberastu ere! Askotariko jendearekin hartu-eman zuzena izaten dugun lanetan asko ikasten da. Hiru gauza behar dira: entzuten jakitea, pazientzia izatea, eta psikologia erabiltzea, berotuta datorrena baretzeko eta konfliktuak saihesteko. Atzo gauean [Gabon aurrean egindako elkarrizketa da] gertatu zitzaidan gauza polit bat: joan nintzen Elgoibarrera pasiatzera eta elkartu

*"Lehen, beti topatzen genuen norbait etxean, baina orain, oso zaila da portaleko atea zabalduko digun norbait topatzea. Kontrara, gero eta pakete gehiago eskatzen ditu jendeak etxean uzteko"*

nintzen bezero izan dudana batekin taberna atari baten. Gelditu ninduen agurtzeko eta bi ordu egin genituen hotzetan Malape kanpoan, hizketan. Reala ikusteko asmoarekin joan nintzen ni hara, baina ez dakizu zer gustura egon ginen hizketan taberna kanpoan! Bizitzan zoriontasuna momentua bizitzen jakitea da.

### **Correosek jakin du garai berrietara egokitzen. Zeintzuk dira gehien eskatzen diren zerbitzuak gaur?**

*Dirua, minututan* zerbitzua da bat. Mundu osora dirua bidaltzeko aukera ematen du, arriskurik eta arazorik gabe, eta batez ere etorkinek asko erabiltzen dute zerbitzu hori, Wester Unionen bidez senideei dirua online edo zuzenean bidaltzeko. Diruarekin lotuta, badaukagu beste txartel bat ere Interneteko erosketak-eta modu seguruan egiteko. Internet bidezko iruzurrak asko ugaritu dira, eta guk sei euroan saltzen dugun txartel horrek ahalbidetzen dizu ahalik eta arrisku txikiena hartzea, norberak sartu behar duelako han erosketak egiteko behar duen dirua, eta txarrean, diru hori bakarrik galtzen duelako. Bankuko txartelaren tipoko bat ere saltzen dugu, batez ere etorkinek asko eskatzen dutena. Pare bat euro gehiago ordainduta, gainera, txartel hori kontu korrante ere bihurtzeko aukera eskaintzen dugu, transferentziak-eta egin ahal izateko.

Internetez erositako produktuak itzultzeko zerbitzua eta dokumentuak digitalizatzen zerbitzuaren eskaria ere handitu da, baita mailetak eta bizikletak bidaltzeko zerbitzua ere. 23 euro ordainduta, maleta nahi duzun lekura eramaten digu Correosek 24 orduko epean, eta 47 euroan bizikleta ere bidali dezakegu, kaxa batean sartu eta behar bezala enbalatuta.

### Zu zeu izan al zara eskutitzak-eta bidaltzekoa?

Ez ba! Lehen banuen Gabonetan-eta zoriontzeko ohitura, baina galdu dut hori ere. Ni ere harrapatu nau olatuak. Lehen, sakonagoak ziren harremanak eta beste patxada batekin egiten genituen gauzak; orain dena da dida egin beharra. Polita zer zen ba! Ez genuen idazten bueltan zerbait etorriko zen esperoan, baina ia ziurra izaten zen bueltan jasotzea ere. Eman-hartu hori da polita. Amarengandik ikasi nuen hori. Gure amak ez zuen ikasi idazten eta irakurtzen, baina balio handikoa izan zen, eta beti esan zigun laguntzeko ahal genuenean, bueltan ezer espero gabe.

5 urteko harremana izan nuen hiru-seme alaba zituen emakume batekin eta gogoratzen naiz harremana utzi ondoren nola deitu zidan haren 12 urteko mutikoak esanez lau ikasgai utzi zituela gainditu gabe eta ia lagunduko nion. Zer den bizitzan gaizki pasatzea, adin horrekin heldutasun hori agertzeko! Uda hartan Iruñetik Mendarora etorri zen. Goizetan jartzen nizkion ariketak, zuzentzen nizkion lanetik irtendakoan eta hondartzara joaten ginen gero. Lortu zituen errekeratzea gainditu gabe utzitako ikasgaiak eta pasatu zen mailaz, eta sekulako poza hartu nuen haren zoriona ikustean. Aurten, 25 urte bete ditu, eta etxe berriko giltzak ematen dizkiotenean mesedez ikustera joateko eskatu dit. Bizitza markatu dit gertakari horrek. Eta nik harengan utzi dudana arrastoaren parekoa utzi dute nigan lankide izan ditudanek eta beste jende askok. Hori da Correosetik daramadan handiena.

### Zer etorkizun ikusten diozu Correosi?

Ona. Estatuaren enpresa da Correos, interes publikoko zerbitzua eskaintzen du, eta herri guztietara iristen da, baita bestelako enpresei errentagarri ez zaizkien herri txikietara ere. Hori du ona. Iruditzen zait hiru ezaugarri horienatik aurrera egingo duela, eta baita garai berrietara egokitzen asmatzen ari delako ere. Aurrekoan irakurtzen nuen Correos badabilela seguruak komertzializatzeko asmotan eta baita banku publiko bat sortzeko haizearekin ere, herri txiki galduetan zerbitzua emateko. Bestalde, langile kopuru handiko enpresa ere bada Correos, eta ez dut uste Estatuak lagako lukeenik ixten.



*"Estatuaren enpresa da Correos, interes publikoko zerbitzua eskaintzen du, eta herri guztietara iristen da, baita beste enpresei errentagarri ez zaizkien herri txikietara ere. Hori du ona"*

### Aldatu beharrik ikusten diozu?

BM merkataritza gunean badu Pack puntu bat Correosek, baina dagoen eskari handirako txiki ari da gelditzen. Orduetgia ere zabaldu beharko luke ziurrenik, hiri handietan egin duten moduan. Eibarren, Azpeitian, Zarautzen, Bergaran... arratsalde ere zabaltzen du Correosek, eta ez da aukera txarra. Postariak behartuta daude legez egunean bi orduetgitan pasatzeko jakinarazpenak banatzera, goizez eta arratsalde, eta askotan bulegoan pakete asko pilatzen direnean saiatzeko dira haiek ere ateratzen. Arratsaldeetan gehiago egoten da jendea etxean, eta denborarekin uste dut bulego gehiago zabaldu beharko dituztela, gainerakoekin lehiatuko badira.



## ANDER LIPUS

Antzerkilaria

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Ainhoa Resano

Amets Arzallus eta Ibrahima Balderen 'Miñan' liburuan oinarritutako izen bereko antzezlanaren taularatuko dute Artedramakoek bihar, urtarrilak 17, Elgoibarko Herriko Antzokian, 19:00etan. Anaia edo arreba txikia esan nahi du *miñan* hitzak pularrez, Ibrahima Balderen etniaren (fula) hizkuntzan, eta Ibrahimaren istorioa da antzezlanean kontatzen dutena, inor epel lagatzen ez duen kronika horietako bat. Anaia txikiaren bila irten, eta nahi barik, Europaraino iritsi zen Balde, bidean, gosea, egarria, tortura, esklabotza, arrazismoa eta beste hainbat miseria jasanda. Ibrahimari entzun eta haren ahozko jariora errespetatuz idatzi zuen Arzallusek liburu eta guzti horri lehial izan zaizkio Artedramakoak obra honetan. Horixe izan dute erronka nagusia, Ander Lipus (Markia-Xemein, 1971) zuzendari eta aktorearen arabera. Sarrerek erosteko: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)



*“Pozik nengoke kontzientzietan eragin eta bihotzak xamurtzea lortuko bagenu”*

### Zerk bultzatu zintuen 'Miñan' antzezlan bihurtzera?

Pandemia betean irakurri nuen *Miñan* eta inpresionatuta utzi ninduen, bai Ibrahimaren istorioak berak eta baita Ametsen idazkerak ere, baina egia da oholtzara eramatea ez zela nigandik irten, hasiera batean behintzat. Artedraman beti izan dugu migrazioaren gaiarekiko sentsibilitate berezia [Aurrez *Etxekoak* eta *Atzerrian lurra garratz* obrak sortu zituzten]; beti kezkatu gaitu kanpotik datozeinei ematen diegun tratuak eta nola sentitzen diren haiek gurean, baina *Miñan* irakurri nuenean nire burutik ez zen pasatu antzerkiera eroatea, batez ere nik ez ditudalako sekula testuen egokitzapenak egin. Artedraman geuk idatzi izan ditugu obrak. Baina ezagutu nuen Timberlake Wertebaker, Ametsen laguna, Londresen bizi eta Saran (Lapurdi) euskaldundua den dramaturgoa, *Miñan* ingelesera itzuli zuena.

Timberlakek esan zidan asmoa zuela Londresen muntatzekoa antzezlanaren, baina handik denbora batera zertan zen galdetu nionean, aitortu zidan ez zuela momentuan aukerarik topatu. Eta orduan, elkarrekin hemen egitea proposatu nion. Topatu genituen hiru aktore beltz miresgarri (Sambou Diaby, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye), eta jo genuen Ametsengana.

### Arzallusek esana du hasieran nahiko uzkur agertu zela. Ez zuen edo ez zuten itxuraz argi ikusten.

Ez zeukan oso argi, ez. Gurearen aurretik Madrilgo antzerki konpainia baten eta beste antzerki talde batzuen eskaintzak ere izan zituzten *Miñan* taula gainera eramateko, baina ezetza eman zieten. Ametsek arriskua ikusten zuen Ibrahimaren zauria berriro irekitzeko, istorioa berriro komertzializatzean, eta aldi berean kezkatzen zuen nola erakutsiko genuen zauri

hori antzerkian. Azkenean, baina, baietza eman ziguten eta hasi genuen sorkuntza prozesua.

**'Miñan' liburuaren 40.000 ale baino gehiago saldu ei dira euskaraz, itzuli dute beste hizkuntza batzuetara ere eta irakurle bakoitzak bere pelikula sortuko zuen. Batetik dago hori, eta bestetik, bi egileek hasieran agertu zizueten kezka. Pentsatzekoa da sentituko zenutela zuek ere halako ardura bat, ala?**

Ez zen erronka erraza, eta guk ere bagenuen beldurra. Ametsek baietza eman zigun unetik nik argi izan nuen oso fidelak izan behar gintzaizkiola testuari eta ezin genuela ezer asmatu edo fikzionatu obrari ondo zetorkiolako. Oso zorrotz zaindu dugu hori. Jakina, gauza asko kanpoan laga behar izan ditugu, bestela antzerkia luzeegia izango zelako, baina uste dut gauza fina egin dugula, besteak beste Amets bera asko inplikatu delako sorkuntza prozesuan.

Sentitzen genuen halako konfiantza bat egiten ari ginen horren inguruan eta emaitzarekin oso-oso gustura gelditu gara, batez ere publikoa oso hunkituta irteten delako antzokitik. 45 emanaldi egin ditugu eta 11.000 lagunek ikusi dute obra; izugarria da! Arrakasta horretan faktore asko nahastu dira. Batetik, Ametsen figura, ukitzen duen guztia urre bihurtzen duelako, eta bestetik, gaia bera, baina beste bi faktore ere aipatuko nituzke: aktore taldea, batetik. Sambou Diaby, Eihara Irazusta eta Mikel Kaye aktoreak oso gazteak dira, beltzak eta euskaldunak, eta oraindik ere horrek inpaktatzen gaitu, ez dugulako hori normalizatuta. Eta bestetik, Artedramak badu ibilbide bat egina, badu bere publikoa, eta hori ere garrantzitsua izaten da jendearengana iristeko. Antzezanak badu gero beste kontu bat liburuak ez duena. Liburua Mediterraneoan amaitzen da, itsas salbamendukoek Ibrahim hartzen dutenean, baina nik argi ikusi nuen antzerkian zarratu behar genuela haren odisea, liburua irakurri duten guztiek galdetzen dutelako zer gertatu zaion gero Ibrahimari. Nik uste dut Ibrahimaren odisea hamar urte geroago amaitu zela, amarengana itzuli ahal izan zenean paper eta guzti.

*"Badago joera bat Mediterraneoan zeharkatzen duten migranteak deshumanizatzen, haien bizitza gaineko axolagabekeria zabaltzeko"*

**Arzallusen idazkera xumea bezain ederra da 'Miñan'-en. Berak esana da ahozko kulturaren arrastoa zuen Ibrahimaren jarioaren neurriko euskara fabrikatzea izan zuela burukomin handiena. Liburua eta antzerkia bi gauza dira, baina hori nola ekarri duzue antzerkira?**

Erronka handia izan dugu hori. Amets magoa da hitzarekin jolasean eta iruditzen zait sekulako aziertoa izan zuela horretan. Niretzat kezka handia zen Ibrahimaren ahots hori antzerkira bere horretan eramatea eta uste dut fidelak izan gatzazkiola horri. Hizkuntzaz asko hitz egin genuen Ametsek eta biok, testu literarioan funtzionatzen zuten gauza batzuek ez zutelako funtzionatzen antzerkian. *Kilo* esaten dio kilometroari Ibrahimak testuan eta hori errespetatu dugu adibidez, baina badaude beste kontu batzuk ezin izan ditugunak ekarri antzerkira, antzerkiak beste hizkuntza bat darabilelako. Aita hil-hurren duenean adibidez,





Ibrahimak 'aitak zailtasun batzuk ditu' esaten die auzokoei frantses kaskarrean, eta liburuan ederra den arren, ahozkoan eta bat-batekoan, ez da ondo ulertzen. Horren orde, 'aita gaizki dago!' erabili dugu antzerkian. Hautu asko egin behar izan ditugu, eta hautu horietako bat izan da antzerkia euskara batuan sortzea ere.

#### **Zuzendari izateaz gainera, aktore ere bazara obran. Zer eragin dizu pertsonaia horiek gorpuzteak?**

21 pertsonaia interpretatzen ditut, eta hasieran izan nuen gatazka txiki bat, ni zuria naizelako azalez eta interpretatu behar nituen pertsonaia asko beltzak direlako, baina euskal antzerkigintzan prekarioan bizi gara eta, gustura egingo nukeen arren, ezin ba zazpi aktore beltz hartu! Artedramakoek, gainera, argi zuten neu egon behar nintzela. Hasieran eta bukaeran Ametsen papera egiten dut obran, baina gero egiten dut Ibrahimaren aitarena, umearena, Liberian mekanika irakatsi zion gizonarena, Nadorreko basoan programak antolatzen zituen trafikantearena.... Eta berdin egin dute besteek ere. Eiharak, 21 urte izanagatik, Ibrahimaren amarena egiten du, bai eta Ismail txikiarena ere, neska izanagatik. Antzerkiak baimentzen duen kodifikazio bat da hori.

#### **Zer ikasi duzu guzti honetatik?**

Ez direla hauek urrutiko kontuak. Ibrahim gorpuzten duen aktorea, Sambou, zumaiarra da, baina bere gurasoak senegaldarrak dira eta aitak entseguetan kontatu zidan berak ere zeharkatu

zuela basamortua Afrikatik Europarako bidean eta ikusi zituela hildakoak bidean. Gauza horiek eragin egiten dute, jabetzen garelako gure ondoan bizi diren askok bizi izan dituztela ankerkeria horiek. Mikel Kaye aktorearen aitak berak ere bai. Eta horren inguruko gogoeta kolektiboa egiteko beharra zegoela ikusita eman ziguten baietza Ametsek eta Ibrahimak, badagoelako joera bat gaur Mediterraneo zeharkatzen duten migranteak deshumanizatzekoa, haien bizitzen gaineko axolagabekeria zabaltzeko, bai eta haiei buruz dena jakingo bagenu moduan hitz egiteko joera ere, ahaztuta pertsona adina istorio daudela.

#### **Zer esan dizue Baldek obrare?**

Arriagara etorri zen Ibrahim, baina azkeneko hamar minutuetan sartu zen antzokira, beretzat gogorregia zelako besteak beste aita nola hiltzen den ikustea, baina badaki istoria zabaltzeko on egiten duela, kontzientzietan eragiten duen neurrian.

#### **Zer lortuta sentituko zara bihar gustura?**

Beti kostatu zaigu asko Elgoibarrera iristea eta gogotsu noa, azkena *Zaldi Urdina* obrarekin izan ginelako hor. Orain arte antzoki guztiak bete ditugu eta ederra litzateke hori ere betetzea. Jendea oso hunkituta irteten da emanalditik, asko eta asko malkotan, eta nahi nuke hor ere jendeak enpatizatzea migranteekin. Pozik nengoke kontzientzietan eragitea eta jendearen bihotzak xamurtzea lortuko bagenu.



## Errelebo mistoko Espainiako Kros Txapelketan lehiatzeko sailkatu da Mikel Agirrebeña

**E**uskadiko Kros Txapelketa jokatu zuten domekan Ordiziako Oiangu parkean, eta lasterketa mistoan lehiatu zen Mintxeta Atletismo Taldeak txapelketan izan zuen ordezkari bakarra: Mikel Agirrebeña Iturbe.

Txindoki Atletismo Taldeak urtero Ordizian antolatzen duen kros lasterketa Euskadiko Kros Txapelketa ere izan da aurtien. Ainhoa Sanz urretxuarra eta Ibai Larrea antzuolatarrak izan ziren azkarrenak emakumeen eta gizonezkoen kategorian absolutuetan. Maila horretan 8,1 kilometroko ibilbidea osatu zuten antxitxikariek. Mikel Agirrebeñak lasterketa mistoan hartu zuen parte, bi kilometroko ibilbidean, eta bigarren postua eskuratu zuen. Probako lehen lau sailkatuek Euskadiko selekzioa ordezkatzeko dute Federazio Autonomikoen Espainiako Kros Txapelketan, urtarrilaren 26an, Getafen. Agirrebeñak Adrian Pajares, Izaro Perurena eta Uxue Mardaras izango ditu taldekide Getafen. Han prestatu duten zirkuituari itzuli bat eman beharko dio taldekide bakoitzak. Espainiako Kros Txapelketaren 107. edizioa izango da eta hirugarrenoz jokatuko dute errelebo mistoen txapelketa.



### Xoxotera mendi irteera antolatu dute domekarako

Arno guraso elkarteak ume eta familientzako beste irteera bat antolatu du domekarako, urtarrilaren 19rako. Xoxotera (930 metro) igoko dira. Mendaroko ikastola ondoko aparkalekutik irtengo dira 09:30ean eta autoetan joango dira Aittolako aparkalekuraino. Joan-etorria hiru bat orduan egitea aurreikusten dute. Ordu t'erdian Urola bailarako ikuspegiak gozatzeko mendi buelta erraz eta eroso da Aittola eta Xoxote artekoa, eta haurrekin mendira igotzeko aproposa.



## Bihar, barikua, jokatuko dituzte San Anton Pilota Txapelketako hiru finalak

San Anton Pilota txapelketa "azken ordukoena" izaten ari da aurten. Azken orduko aldaketak izan ziren lehen finalerdiak jokatu bezperan, eta emakumezkoen lau t'erdiko finalerdiak bertan behera laga behar izan zituzten antolatzaileek. Eta joan den barikuko finalerdietan ere izan zen azken orduko aldaketa bat. Sasoi betean eta Gipuzkoako txapelketa irabaztetik zetorren herriko pilotari Iker Izagirre ikusteko gogoz gerturatu ziren pilotazaleak Ikastolako pilotalekura, baina gogoz gelditu ziren, Izagirrek ezin izan baitzuen promesa mailako finalerdia jokatu. Harkaitz Muruak ordezkatu zuen Izagirre eta Sotilekin osatu zuen bikotea. 22 eta 19 irabazi zieten Ibarluzeari eta Santestebani. Hortaz, Muruak eta Sotilek Ramirezek eta Leonetek osatutako bikotearen aurka jokatu dute bihar finala, 19:00etatik aurrera.

Nagusien mailako azken finalaurrekoan, berriz, Irribarria eta Loza gailendu ziren, Etxeberrinari eta Bernaolari 22 eta 15 irabazita. Iker Irribarriaren anaia da Ekhi eta iaz bikoteka Munduko Pilota Txapelketa irabazi zuen atzelari errioxarra da Carmelo Loza. Urtarrilaren 3an jokatu dute lehen finalerdian finalerako sailkatzea lortu zuten Rekalderen eta Lasaren aurka jokatu dute finala.

### Errebantxarako aukera emakumeen finalean

Emakumeen lau t'erdiko txapelketako hirugarren edizioako finalarekin hasiko da Lagunak Pilota Eskolak antolatzen duen pilota jaialdia. Iaz txapeladunorde izan zen Goiuri Zabaletak (Leitza, 2009) eta Amaia Aldaik (Dima, 2001) jokatu dute finala. Une honetan ikus daitekeen emakumezkoen arteko partida erakargarrienetakoa da, bi pilotariok jokatu baitzuten, abenduaren 15ean, Emakume Master Cupeko lau eta erdiko finala, Sestaoko Las Llanas frontoian. Aldaik laugarren txapela irabazi nahi zuen jarraian, baina 15 urteko leitzararen burura joan zen irabazlearentzako garaikur estimatua, 11-22ko emaitzarekin. Hortaz, errebantxarako aukera izango dute San Anton txapelketako finalean.



# La Roita erronkak baditu bi lehiakide, baina hirugarrenaren bila dabilta

**G**abon Zahar azokan herriko kaleetan jarri zituzten kartelen bitartez eman zuten ezagutzera La Roitakoek aurtengo erronkako lehiakideak zein izango diren. Erronkaren bosgarren ediziorako emakumeen arteko norgehiagoka antolatu nahi zuten, eta lortu dituzte lehiakideak. Ainara Burunza eta Nerea Sasiain arituko dira lehian uztailaren 5ean jokatuko duten kirol erronkan. Halere, hirugarren lehiakide bat nahi lukete batu erronkara, eta parte hartzera deitu dituzte herriko emakume kirolzaleak. Aurreko edizioetako lan berbera egin beharko dute: Mutrikuko portuan 600 metro igerian egin, Elgoibarreraino bizikletaz etorri, Kalbario gainetik pasaz, eta, Kalegoen plazan bizikleta laga ostean Karakateko tontorreraino igo.

Iker Odriak irabazi zuen norgehiagoka herrikoiko lehen ekitaldia 2021ean, Antxon De La Aradari irabazita. Ioritz Leiaristi gailendu zen bigarren edizioan, Antxon De La Aradari eta Ivan Rogeli aurrea hartuta. Hirugarrengoa Ion Fernandez mendaroarra gailendu zitzaizen Ander Aranbarriri eta Asier Basurtori. Eta iaz, laugarren edizioan, lehen hiru ekitaldietako irabazleek neurtu zituzten indarrak eta Iker Odria izan zen indartsuena.



## Urteko Batzar Orokorra egingo du Morkaikok urtarrilaren 22an

Batzar orokorrera deitu ditu bazkideak Morkaiko Mendizale Elkarteak urtarrilaren 22rako. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian egingo dute batzarra, 19:00etan. Ezohiko batzarra egingo dute lehenik, estatutuen aldaketaren onarpena aztertzeko, zuzendaritza aldaketa batzar orokorrean egin ahal izateko beharrezkoa delako. Izan ere, indarrean dituzten estatutuen arabera hauteskondeak egin beharko lituzkete zuzendaritzaz aldatzeko. Gero, batzar orokorrean, iazko urtearen erreposoa, antolatutako ekintzen balorazioa eta balantze ekonomikoa izango dituzte hizpide. 2025. urterako ekintzak eta logotipo berria ere aurkeztuko dituzte. Zuzendaritza berritzeko beharra dutela jakinarazi dute mendi taldeko arduradunek. "Lau lagun gaude zuzendaritza taldean, eta ez da jende aldaketarik egon azken urteetan. Morkaikok lagun berriak behar ditu gidaritzan, ideia berriak eta gogoia ekarriko dituzten lagunak", adierazi dute. Ateak zabalik dituztela esan eta eurekin harremanetan jartzeko eskatu diete prest leudekenei.

## 'NahiDozunian' aplikazioa jarriko du martxan kirol patronatuak otsailean



nahidozunian

*NahiDozunian* aplikazioa jarriko du abian Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak otsailetik aurrera. Pilates, zumba, body hit, crossfit edo spinning ikastaroetan parte hartzen dihardutenek ordutegiz edo saioz aldatzeko aukera izango dute, joaterik ez badute. Aldaketa horiek mugikorreko aplikazio baten bitartez egin ahal izango dituzte, "modu erraz batean, betiere plazak badaude. Baina horrek ez du esan nahi jatorrizko ikastaroan plaza galduko dutenik". Abonatuaren kontziliazioan laguntzeko sortu dutela esan dute, "aukera eskuragarriagoak eta pertsona bakoitzaren beharretara egokituagoak eskaintzeko". Xehetasun gehiago, Udal Kirol Patronatuaren webgunean edo patronatuaren bulegoetan.



## 'Andereño Rosita' antzerki-bakarrizketa, Mendaron, hilaren 26an



2025eko Euskaraldiaren Kulturaldia programazioaren barruan, *Andereño Rosita* antzerki-bakarrizketa antolatu du Mendaroko Udalak urtarrilaren 26rako, Taupa Euskaltzaleen Topagunearekin lankidetzan. (San Agustin kulturgunean, 18:30ean). Itziar Saenz de Ojer umoregilea ariko da oholtzan, andereño Rositaren paperean eta publikoarekin harremanduko da saio osoan zehar.

### 1.291 lagunek parte hartu dute Mendaroko ipuin lehiaketan, sekula baino gehiagok

Orain arteko parte-hartze handiena izan da aurtten Mendaroko ipuin lehiaketan. Guztira, 1.291 lagunek parte hartu dute, eta bihar, hilak 17, egingo dute sari banaketa ekitaldia, frontoian, 19:00etan. LH1etik LH4ra bitartekoei ipuin bat eman zieten eta hura ilustratzeko lana eman, eta 730 ikaslek parte hartu dute. Guzti horien artean bat apartatzeko ardura, berriz, Aitor Etxeberria eta Jaime Zamakola artistena izan da. LH5etik DBH2ra bitartekoei, alderantzizko lana egin behar zuten: emandako ilustrazio batetik ipuina sortu, eta 428 ipuin aurkeztu dituzte. Iñaki Goitia idazle eta liburuzainak eta Ainara Argoitia kazetariak egin dituzte epaile lanak. Nagusien kategorian, berriz, DBH3 eta DBH4ko ikasleek parte hartu dute, eta haien lana komiki bateko hutsuneak betetzea izan da. Amagoia Zabala gizarte-langileak eta Olaia Revert Lan-osasuneko erizain eta idazleak egin dituzte epaile lanak kategoria honetan eta 133 komikiren artean aukeratu dute irabazlea.

## Iñaki Goitia Mendaroko liburuzainaren lau mikroipuin argitaratu dituzte New Yorkean, esperantora itzulita



Lau dira Liven Dek itzultzaileak esperantora itzuli eta New Yorkeko *Beletra Almanako* aldizkari entzutetsuak argitara eman dituen Iñaki Goitia idazle eta liburuzainaren (Oñati, 1981) mikroipuinak: *Tragedia moderna*, *Descorazonador*, *Instrucciones para sembrar la duda* eta *Profesionalidad*. Laurak dizkiote sarituak aurrez, azkena Madrilgo Metroak joan zen ekainean antolatutako Metrorrelatos lehiaketan: *Tragedia moderna*. Ser irrati kateko Relatos en Cadena mikroipuin lehiaketako finalerako aukeratu zioten *Descorazonador*, 25.000 lanen artean, eta aurrez *Instrucciones para sembrar* ere bai, eta Espainiako Irrati Nazionaleko sariketan nabarmendu zuten haren *Profesionalidad* mikroipuinak.

"Laino batean nago. Badaude ametsak irrikaz espero dituzunak betetzea, eta gero hau dago: ametsik onenetan ere sartu ezin zitekeena. Baina benetakoa da, ukigarria. New York. Ameriketako Estatu Batuak. Noizbait jaitziko naiz hodei honetatik", zabaldu zuen Goitiak berak sare sozialetan barikuan, eta antzeko hitzak errepikatu zizkion BARRENI ere. "Egia da sekula ez dudala pentsatu lanen bat sarituko zidatenik eta Madrilan jaso ditudan aitortzek ere ezustean harrapatu nautela beti, baina hau ikaragarria da. Nire mikroipuin bat argitaratzeko baimen eske idatzi zidaten eta zein zen galdetu nienean gustatu zitzaizkienak lau zirela esan zidaten. Ezin nuen sinetsi. Ikaragarria da, eta hemen nago, aldizkaria eskutan, ezin sinetsita".

## Ohiko osagaiak izango ditu San Anton jaiegunak, bihar

San Anton eguna da bihar, jaieguna Elgoibarren, eta Udalak osatu du jai-egitaraua, herriko beste zenbait eragilerekin lankidetzan. Hasteko, meza izango da San Bartolome parrokian, 11:00etan, eta ondoren, 11:30ean umeentzako parkea zabalduko dute Kalegoen plazan eta Aita Agirren (Euria bada, Sigman). Goizez, 14:00ak arte egongo da zabalik, eta arratsaldez, 16:30etik 19:30era arteko ordutegia izango du.

Eguerdian zabalduko dute Altzolatarren Dorretzekoek urteroko zigilu-erakusketa ere. Aurten santa eskeko Etxegina taldearen mendeurrenari eskainiko diote erakusketa, eta hilaren 25era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean. Gutxienez 75 erakusmahai izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Aste-barruan 18:30etik 20:30era bisitatu ahal izango da erakusketa, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara goizez, eta arratsaldez, 14:00etatik 18:30era. Omenduaren motiboarekin seilu bat ere argitaratuko dute eta postaren etxea zapatuan, urtarrilaren 18an, zabalduko dute, hiru orduz, 11:00etatik 14:00etara. Hain justu ere, zapatuan, egingo dute urteko lehen batzarra Filatelia Elkarteak Euskal



Federaziokoek ere, Kultur Etxeko hitzaldigelan, 11:00etan, eta 13:00etan izango da itxiera ekitaldia. Han banatuko dituzte sariak ere.

### **Dultzaineroen kalejira, antzerkia eta San Anton pilota txapelketako finala**

Bihar arratsaldean, kalejiran irtengo dira herriko dultzaineroak, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak lagun dituztela. Iluntzean, berriz, *Miñan* antzezlanaren taularatuko du Artedrama arte eszenikoen plataformak Herriko Antzokian, 19:00etan, eta ordu berean hasiko da San Anton pilota txapelketako finala, Ikastolako frontoian.

### **Hilaren 31ra arteko epea dago Elgoibarko orri-markagailuen lehiaketan parte hartzeko**

Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegiak orri-markagailuen lehiaketa antolatu du zortzigarren urtez Elgoibarren eroldaduta dauden edo Elgoibarren ikasten duten haur eta gazteentzat, eta urtarrilaren 31 arteko epea dago lanak aurkezteko. Bi maila bereiztu dituzte: LH5era artekoena (barne) eta LH6tik aurrerakoena. *Bruna, gure laguna* izango da iruditarako gaia eta orri-markagailuak 210 milimetroko luzera eta 50 milimetroko zabalera izan beharko ditu. Irudia, berriz, paperean edo pdf formatuan entregatu beharko da Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegian

edo [liburutegia@elgoibar.eus](mailto:liburutegia@elgoibar.eus) helbidera bidalita. Orri-markagailuaren atzeko aldean (edo emailean, digitalki aurkezten den kasuan) izena, bi abizen eta kurtsoa zehaztu beharko dira.

Egur tailerreko irakasle Paula Heras, Ane Arte tailerreko irakasle Ane San Martin eta Gemma Monreal margolariak osatuko dute epaimahaia eta maila bakoitzeko sarituak 150 euroko balea jasoko du Txankakuako dendetan gastatzeko. Horrez gain, baina, lan saritua Gotzon Garate Udal Liburutegiak 2025erako argitaratuko duen orri markagailuan agertuko da.

**LANA**

**Eskaerak**

Zerbitzari moduan egingo nuke lan. Esperientzia. **632 232 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan, ospitalean, gauzez...

**632 292 662**

Lanerako prest nago: Margolari lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzi handia daukat. Titulu soziosanitarioa daukat.

**603 727 067**

Adinekoak nahiz umeak zaintzen egingo nuke lan, baita garbiketa kontuetan ere. Titulua eta formazioa ditut.

**643 097 648**

Edozertan egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest nago.

**643 097 599**

Edozein lan egingo nuke: gizon adinekoak zaindu, obran, pintore lanak... Eskarmentua daukat eta erreferentzia onak.

**603 727 067**

Gizon adinekoak zaintzen, garraioan, karga-lanetan... egingo nuke lan. Esperientzia daukat.

**614 114 360**

Adinekoak eta umeak zaintzen edota etxeak eta lokalak garbitzen egingo nuke lan.

**643 505 827**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat eta eskarmentu handia. Berehala lanean hasteko prest.

**643 505 662**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.

**602 152 685**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka edo etxeko langile moduan.

**602 362 919**

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut.

**642 852 854**

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Garbiketa lanetan esperientzia. Titulu soziosanitarioa daukat.

**661 063 891**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat eta erreferentzia ezin hobek askaini ditzaket. Berehala hasteko prest.

**632 711 473**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Titulu soziosanitarioa daukat.

**631 664 700**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. 17 urteko esperientzia daukat, eta titulu soziosanitarioa ere bai.

**624 131 378**



**BESTELAKOAK**

Taka-taka bat daukagu saltzeko. Berria dago. **615 759 069**




Gabonetan semearen ahoko aparatoa galdu genuen kalean. Bi pieza dira, horia eta urdina. Balio handia dauka, eta eskertuko genuke norbaitek aurkitu badu abisatzea. **653 702 750**

4 urteko umearen patinete txiki bat galdu dugu. Urdin argia da. **628 564 011**

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Zor duen hileko kuota ari gatazka erreklamatzeko gure komunitatean lokal jabe bati. Hainbat aldiz hitz egin ostean, adostasun batera iritsi gara bi aldeak, eta zordunak agindu du urtebeteko epean ordainduko duela zor duen diru kopuru hori. Jakin nahiko nuke komunitateak eskumenik ote duen zordunari zor duen diru guztia ordainketa bakarrean ordainarazteko. Izan ere, etxejabe batzuek ez daude konforme ordainketa horrenbeste atzeratzearekin.</b></p> <p>Komunitateak aukera dauka zor osoa aldi bakar batean ordaintzea exijitzeko, beti ere, bi aldeek ez baldin badute ordainketa sistema jakin bat adostu. Dena den, komunitate horretako jabe guztiek ez dute zertan onetsi bi aldeek adostutako ordainketa sistema. Akordioek helburu bakarra dute: epaiketara jo beharra saihestea zordunari kuota ordain dezan exijitzeko edo hasitako auzibidea amaitzeko. Legeak dio komunitateko gastuak jabeakideen batzarrean adostutako moduan eta epeetan ordaindu behar direla. Bestela, presidenteak edo administratzaileak epaiketara jotzeko aukera izango luke, beti ere jabeakideen batzarrak hala adostuz gero.</p> <p><b>AHOLKUA: zor duen guztia ordaintzeko exijitu diezaiokie etxejabeen batzarrak zordunari, eta hark ordainduko ez balu, batzarrak aukera izango luke epaitegira jotzeko eta auzibidea hasteko.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Elene**, urtarrilaren 21ean 4 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Malenen partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Aiur!** Urteko bat! Zeinen azkar pasatu zaigun! Muxu handi bat, maitea.



Zorionak, **Beñat**, mutil handi! 7 urte! Ederki ospatuko dugu zure eguna asteartean. Muxu handi handi bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Elaia**, zure bigarren urtebetetzean! Muxu erraldoi bat, familiako guztion partetik.



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**



Jon Aranao  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenerik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

ilepoindegi zerbitzua daukagu.  
Deitu ordua hartzeko.



## KONTSULTATEGIA

### *FirstFit, zer da? Zergatik erabili tratamendu hau?*

FirstFit munduko hortzetako estetika tratamendu aurreratuena da. Hortzetako tratamendu bat da, non Karilla estetiko gidatuak jartzen diren FirstFit teknologia odontologikoak garatutako prozesu digital bat erabiliz.

#### Zergatik erabili FirstFit?

Prozedura azkarra delako, inbasiorik txikiena eragiten duelako eta gainera ematen dituen emaitzak oso zehatzak direlako. Gainera, tratamendua hasi aurretik, pazienteari nahi duen irribarrea proiektatzeko aukera ematen dio. Aurreikuspenari esker, pazienteak nahi dituen aldaketak egiteko aukera du, gehien gustatzen zaion irribarrea erakusteko.

Azkenik esan dezakegu FirstFit tratamenduak hortzen egitura oso ondo kontserbatzen duela.



**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)  
**943 366 377**

## 17 BARIKUA

**21:00** Dj saioa. Ibon Dj-ak musika saioa emango du. Kultur Kafean.

## 21 MARTITZENA

**09:00** Irteera osasungarria. Jubilatuen Biltokiak antolatuta. Tren estaziotik abiatuko dira.

**18:30** Hitzaldia: 'Gu berri bat sortzeko beharra'. Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak antolatuta, Julen Arangurenak eta Ekhine Eizagirrek emango dute. Aita Agirreko areto nagusian.

## 22 EGUAZTENA

**18:00** Literatura sorkuntza, Jasone Osororekin. Haizeak antolatuta, Lilan, gaztelaniaz.

**19:00** Morkaikoren batzar nagusia. Aita Agirrek Kulturguneko areto nagusian.

## 24 BARIKUA

**17:00 eta 19:00** Goazen!. Kontzertua, Herriko Antzokian.

## SAN ANTON

### 17 BARIKUA

**11:00** Meza nagusia, San Bartolome parrokian.

**11:30 - 14:00 eta 16:30-19:30** Umeentzako parkea, Kalegoen plazan eta Aita Agirren. Euria bada, Sigman.

**12:00** Zigilu erakusketaren inaugurazioa. santa eskeko Etxegina taldearen urteurrenari eskainiko diote aurten. Hilaren 25era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean, lanegunetan 18:30etik 20:30era eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

**17:30** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

**19:00** Antzerkia: 'Miñan'. Herriko Antzokian.

**19:00** San Anton pilota txapelketako finala. Ikastolako frontoian.

### 25 ZAPATUA

**11:00** Filatelia Elkarteko Euskal Federazioaren urteko lehen batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Filatelia erakusketaren itxiera ekitaldia eta parte-hartzaileei omenaldia. Kultur Etxeko sotoan.

## BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**Ne bulegora etorri eta berria emango dizugu. Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea. Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



**Zinea**



**'Cuerpo escombros'**

18 zapatua: 19:00 / 22:15  
 19 domeka: 19:00  
 20 astelehena: 21:00



**'Sonic 3'**

19 domeka: 16:30



**'La sustancia'**

(Ongarri zinekluba)  
 22 eguaztena: 21:00

**2025eko botika ordutegiak:**  
 09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<b>URTARRILA</b>	<b>Egunez</b>
17 BARIKUA	■ Oruesagasti
18 ZAPATUA	■ Oruesagasti
	■ Garitaonandia
19 DOMEKA	■ Oruesagasti
20 ASTELEHENA	Barrenetxea
21 MARTITZENA	■ Soto
22 EGUAZTENA	Garitaonandia
23 EGUENA	Arriola
24 BARIKUA	■ Fernandez

2025 urte guztian, gaeuz: Mikel Lekunberri Alberdi.  
 Isasi, 31 (Eibar) - 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	---	--

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**LG NANOCELL 55NANO81T6A  
TELEBISTA**

**499 €**

- 55ko hazbetea
- 4K UHD
- Smart TV WebSos 24
- A5 Prozesadore adimenduna
- Plus Dolby Digitala
- Bateragarria: Apple Home Kit, Airplay, Chromecast, Google, Alexa, ThinQ, Matter
- Ahots bidezko kontrola
- Gaming funtzioak
- Nanocell teknologia

**MILARBIRE**  
 Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**MEKANOSA**  
 Errosario, 27-Elgoibar  
 943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA



## Euskalki saltsa (III)

Anjel Ugarteburu



Euskaraz hitz egitea bera ere delitua zen gerrateko urte anker haietan. Gerra ostean, 1950etik aurrera, euskal kulturari zegozkion ekintzak ere programatzen hasi ziren, poliki-poliki, herrietako jaietan. Hala Eibarren ere. San Joan jaiak zirela eta, bertsolariak iragarri zituzten egunkari nahiz irrati bidez: Basarri, Uztapide eta Xepai. Baimena berreskuratu zuen Arrate irratiak eta *La voz de Guipuzcoak* ere aldarrikatu zuten: bertsolariak izango zirela Eibarren, Untzaga plazan, garagarrilaren 25ean.

Garagarrila uztaila zen batzuentzat eta ekaina beste batzuentzat. Bertsoak entzutera ekainean, San Joan biharamonean, agertu zirenek, bingo! Uztailan, Santio egunez, agertu zirenek, jai! Baraurik etxera. Txaltxan sartu-irtenik egin gabe ez ziren itzuliko, dena den.

Hitz berak zentzu ezberdina izatea ere gertatzen da euskalki edo aldagaien arabera. Gipuzkoako Goierrin entzuna dut Tolosako feriara aterkirik gabe joan eta *seko bustita* itzuli zenaren kasu harrigarria. Seko edo zeharo, guztiz, bustita. Iparraldeko berriak aditu eta *uhin (olatu) lotsagarriak* eragin zituela ziklogenesiak Lapurdiko itsasertzean. Lotsa edo beldurra (errespetua). Hitzek ez dute zertan neuk dakidan esanahi horretara mugatu. Komeni da erne ibiltzea lotsagarri ez geratzeko.

*Bertan erabaki* irakurri eta entzun izan dugu, batez ere hauteskunde sasoiko mitinetako propagandan. Pentsatu ere bai nik neure kolkorako: *"Horixe da ba, hain zuzen (edo oker), gure arazorik handiena: gureak behar luketen gaiak han bertan erabakitzen direla eta ez hemen bertan"*. Zenbait eskualdetan ondo bereizten dena zergatik ez jaso guztion komunikazio hoberako. Aparkalekuetan ere hala ageri da gure herrietan, batez ere kostaldean: bertakoak. Kanpotik azaltzen garenontzat izango dira, ziurrenik. Ja!


Ondoren kontatuko ditudanak ez dira euskalki kontuak, baina balio dute gaurko lapikoa ontzeko eta graziaz gozatzeko. Irribarrea beti da lapikorako bizigarri ona.

Diktaduraren ondoren hasi ziren, beste askotan bezala, autobusetako zerbitzuetan ere euskara erabiltzen. Hala, hiriburuko autobusetako arduradunak eskatu die lankideei euskaraz jartzeko zenbait iragarpen. Bazegoela bat bulegoan euskarazko hiztegia zuena eta haren esku utzi dute, konfiantza osoz, egitekoa. *Servicio de autobuses, mañana y tarde*.

Itzulpen erraza itxuraz: *Autobus zerbitzua*. Begiratu hiztegian eta bingo!: *bihar eta berandu*. Horrelakoak gertatzen ziren.

Ingelesarekin du lotura hurrengo pasadizoak. Kanadako ozeano barean (Pazifikoa), Vancouverren bizi den anaiak kontatua da. Gregorio Bastarretxea euskaldunak arrantzuan aurkitu du lanbidea eta, halako batean, bere arraindegi negozioa jarri kostako herrixkan. Bastarretxea luzeegi iruditu eta *Bastar L.S.* jarri du lokalaren atarian telefonoaren zenbaki eta guzti.


Berehala hasi dira adarjotzaileak: *-are you bastard?*- Baietz erantzun behar, gainera. *Gregory's shop* jarrita konpondu ei zuen arazoa.





## *Maria Urionabarrenetxea Garro*

2025eko urtarrilaren 8an hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




I. URTEURRENA

## *Estrella Murillo Palacios*

2024ko urtarrilaren 16an hil zen, 98 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, urtarrilaren 19an 11:00etan,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Ama,  
denbora pasa arren, zauden tokian zaudela,  
beti eta betiko gure bihotzetan egongo zara.  
Maite zaitugu.***

Etxekoak



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA



**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

**Santa Klara, 16 - Elgoibar**  
**[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)**  
**[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)**

**Kutzak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

Zergatik eta zertarako euskaldun?



## "GU BERRI BAT SORTU BEHARRA"

Ekhine Eizagirrek Julen Aranguren  
elkarrizketatuko du \*

Urtarrilak 21, asteartea - 18:30 - Aita Agirre kulturgunean

Jatorri ezberdinetatik etortzen ari dira,  
eta etortzen jarraituko dute euskaraz ez dakiten herritarrak.

Eta orain zer?

Nola jarraitu gure herria(k) euskalduntzen?

Non kokatzen da euskara bizilagun berrien integrazio ibilbidean?

**\*Ekhine Eizagirre Zubiaurre:**

"Elgoibarko jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko dituzten pertzepzioak" ikerlanaren egilea.

**\*Julen Aranguren Aizpurua:**

Zarauzko Udaleko Immigrazio eta Kultura aniztasunerako teknikaria.